

## **250. ALDIZKARIA - 2016ko abenduaren 30a**

### **43. NAO - 2020ko martxoaren 3a**

#### **4.b.2) Art., 7. Art. eta 11.1 Art.-en aldaketa**

### **1. Ordenantza** **Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantza.**

Barañaingo Udalak, 2016ko irailaren 29an egin osoko bilkura arruntean, onetsi zuen hasiera batean Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluko aginduei jarraikiz, onespén horren iragarkia 2016ko 196. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 10ean, bai eta Barañaingo Udalaren iragarki oholean paratu ere, eta espedientea 30 egunean egon da jendaurrean.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu foru legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, behin betiko onetsizat jotzen da, eta eranskinean argitaratzen, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Argitara ematen da aipatu agindua bete beharrez, eta ohartarazten ezen honako erabaki honen aurka –xedapen administratiboa baita– ezin dela administrazio bidean errekurtsorik paratu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 112.3 artikuluari jarraikiz. Hortaz, behin betiko onespén honen aurka ondoko bideetako bat erabiltzen ahalko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, zuzenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) artikuluari jarraikiz, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2016ko azaroaren 25ean.–Jarduneko alkatea, José Ignacio López Zubicaray.

### **Aldaketa, Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantzaren. Behin betiko onspena**

Barañaingo Udalak, 2019ko azaroaren 28an egin osoko bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera batez onestea Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantzako aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluan xedatuari jarraikiz, hasierako onspénaren erabakia 2019ko 253. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 27an, baita Barañaingo Udalaren ediktuen taulan ere.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu Foru Legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, ordenantzan egindako aldaketa behin betiko onetsitza da, eta haren testua argitaratzen da, behar diren ondorioak izan ditza, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikulua jarraikiz.

Barañainen, 2020ko otsailaren 12an.—Alkate udalburua, María Lecumberri Bonilla.

## ERANSKINA

### UDAL ORDENANTZA, MERKATARITZA EZ EGONKORRA ARAUTZEN DUENA

#### I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak

##### 1. art.

Barañaingo udal mugapean merkataritza ez egonkorra arautzea du xede ordenantza honek, eta Merkataritza Ez Egonkorrari buruzko uztailaren 3ko 13/1989 Foru Legearen 5. artikulua babesean onetsi da, eta osasunaren arloan aplikatzen ahal den araudiko osasun baldintzak bete beharko ditu.

##### 2. art.

Merkataritza ez egonkorrean egin daitezkeen merkataritza jarduerak dira merkatu txikietan aurretik ezarritako lekuetan eta egunetan eta baimena emanda egiten direnak.

#### II. KAPITULUA. Merkatu txikietako merkataritza

##### 3. art.

1. Saltoki finko batetik kanpora egiten dena da merkatu txikiko merkataritza ez egonkorra. Saltzen dituen produktuen artean elikagaiak ere egon daitezke.

2. Barañaingo udal mugapean merkataritza ez egonkorrean aritzeko toki bakarra izanen da. Hartan saltokiak elkarturik egonen dira eta Udalaren baimena beharko dute. Tokia udal organo eskudunak erabakiko du eta gehienez ere astean behin eginen da, astearteetan, gehienez ere urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte.

#### III. KAPITULUA. Eskumenak

##### 4. art.

1. Alkatetzak, dagokion Informazio Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau zehaztuko du:

a) Zehazki non paratuko diren saltokiak.

b) Datak eta ordutegia; printzipioz, honako hauek:

b1) Eguna: urteko astearte guztietan.

b2) Artikulu aldatua (2020-03-3ko NAO n argitaratua) Urte osoan, astearteetako 00:00etatik 15:00etara, azoka txikiaren kokalekua eta behar bezala seinaleztatutako perimetro-eremua zamalanetarako eremutat hartuko dira, eta debekatuta egonen da gelditzea eta aparkatzea azokatik eta haren funtzionamendutik kanpoko pertsona guztientzat.

b3) Merkatu txikiak 8:00etatik 14:00ak arte funtzionatuko du. 14:00etatik aurrera salmentarako espazioa libre gelditu beharko da saltzaile eta salgai mota guztiez.

c) Hori osatzen duten saltoki kopurua gehienez ere 70 eta 90 bitartekoa izanen da.

d) Noizbehinkako jardueretarako 4 saltoki gordeko dira gehienez, beren ekoizpenak sal ditzaten, baita sasoiako produktu edo salgaiak ere. Horrelakotzat hartzen dira nekazariak saltzen

dituzten beraien uztako produktuak, barkilloak, gaztainak, palmondo adarrak, izeiak eta turroiak, berteak berte.

e) Herriko bestak direla-eta, merkatu txikirik ez da elkarren segidako bi asteartetan eginen, hau da, ez besten astekoan ez hurrengoan.

f) Salbuespenez eta astearte batzuetan jaieguna izateagatik, merkatu txikia egunez aldatzen ahalko da, astelehenera hain zuzen ere.

g) Salgaien erakusketa euskarri edo salmahaietan eginen da, lurretik gutxienez ere 80 zentimetrora. Fabrikazio edo ekoizpen akats ezutuak dituzten produktuak saldu nahi izanez gero, elikagaiak kanpo, akatsaz ohartarazteko txartelak paratu beharko dira bistan, kontsumitzaileek ongi ikusteko maneran. Saltzaileak jatorrizko marka eta salgaien jatorria egiaztatzen dituen dokumentazio behar adinakoa eduki beharko du.

#### **5. art.**

Ezinbertzez, merkatu txikia ez bada egiten ahal, saltoki baten kontzesioa duen esleipen hartzaileak eskatzen ahalko dio Udalari, idatziz, egun horretako tasaren ordainketa.

### **IV. KAPITULUA. Udal baimenak**

#### **6. art.**

Kalez kaleko salmenta indarra duten xedapenek arautuko dute eta horretan aritzeko baimenak Herritarren Babespen Alorraren mendeko zerbitzuek tramitatuko dituzte. Alkatetzak emanen ditu baimen horiek, ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren. Hori guztia, Alorraren Informazio Batzordeari horretarako emandako informazioa ezertan ukatu gabe.

#### **7. art.** Artikulu aldatua (2020-03-3ko NAO n argitaratua)

Urtero, baimen guztiek abenduaren 31n galduko dute indarra eta, beraz, urtero berritu behar dira. Saltoki finkoak berritu ahal izateko, azaroaren 1etik 15a bitartean eskatu behar da, eta ordenantza honetan galdetzen diren agiri guztiak ekarri. Saltokiak libre gelditzen ahalko dira bai horiek adjudikatu ez direlako baldintzak ez betetzeagatik bai adjudikaziodunek eskaerarik aurkeztu ez dutelako; halakoetan, gainerako adjudikaziodunei eskainiko zaizkie eta zozketaz adjudikatuko dira, interesa batek baino gehiagok baldin badu. Azkenik, saltoki gehiago libre gelditzen badira, beren eskaera ezarritako epearen barnean aurkeztu duten eskatzaileen artean adjudikatuko dira, ordenantza honetan lehentasunari buruz ezarritako irizpideei jarraikiz. Ezinezkoa bada, dauden jarduerak eta horiek antzekoak direlako, zozketa eginen da guztien artean, Herriko Etxean. Itxaron zerrendan eskatzailearik ez badago, eskaerak aurkezteko beste epe bat jarriko da eta adjudikatuko zaie dokumentazioa osorik aurkeztu duten interesdunei, ordenantza honetan zehaztutako hautapen irizpideei jarraikiz. Aurreko kasuan bezala, esleitutako saltokiak daudenen antzekoak baldin badira, aipatu den zozketa sistema aplikatuko da.

Aurreko prozeduren ondoren, urte hasieran lanpostu libreak esleitu gabe gelditzen badira, urte bakoitzeko urtarrilaren 15etik 30era bitarteko beste epe bat ezarriko da, Ordenantza honetan eskatutako dokumentazio guztia Erregistro bidez aurkeztuz, urte horretarako lizentzia eman zaien adjudikaziodun guztiek bigarren salmenta lizentzia bat lortu ahal dezaten, ordenantza honetan ezarritako lehentasun irizpideen arabera. Interesdun bat baino gehiago badago, guztien arteko zozketa bidez adjudikatuko dira, udaletxeko bulegoetan.

Urtearen joanean saltokirik libre gelditzen bada, dela adjudikaziodunak uko egin diolako, dela beste arrazoiren batengatik, gainerako adjudikaziodunei eskainiko zaizkie, hauek beren tokia aldatu nahi ote duten. Interesa batek baino gehiagok baldin badu zozketaz adjudikatuko dira.

Adjudikatutako saltokiak adjudikaziodunek okupatu beharko dituzte, eta horiek ezin dira laga, ezta eman ere. Hala ere, Alkatetzak trukeak baimentzen ahalko ditu bi saltokien artean, urtean behin baizik ez; halakoetan, bi interesdunek sinatutako eskaera aurkeztu beharko da. Ezin izanen da trukearik eskatu urte naturalaren azken hiruhilekoan.

Saltzen diren produktuak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan agertutakoak izanen dira, eta Udalari aurkeztutako eskabidean ere.

## **V. KAPITULUA. Merkatu txikiko eremurako eta saltokietarako baldintzak**

### **8. art.**

1. Merkatu txikietan saltzeko beharrezkoak diren udal baimenak erdiesteko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

a) Eskabidea egin baino lehen, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafean inskribaturik egotea eta behar den tarifaren ordainketa eguneratua duela frogatzea.

b) Barañaingo Udalari dagozkion udal tasa eta eskubideen ordainketa eguneratua izatea, edo zorraren zatiketako ordainketarako erabakia aurkeztea, betiere zorra premiamendu aldiari baldin bada.

c) Gizarte Segurantzako dagokion sailean inskribaturik egotea eta ordaindu beharreko kuotak eguneratuak dituela frogatzea.

d) Jarduera ekonomikoaren arriskuak estaltzen dituen erantzukizun zibileko aseguruia izatea, 13/1989 Foru Legearen 4.6. artikulua xedatzen duen bezala.

e) Saltzeko ekartzen diren gai edo produktuen inguruan, erregelamendu tekniko-sanitarioek eta aplikatzeak diren bertzelako xedapenek eskatzen dituzten baldintzak beteko dituela ziurtatzea.

f) Atzerritarren kasuan, egoitza baimena eta lanean beren kontura aritzekoa izatea, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

g) Udal baimena eskatzea, hurrengo datu hauek aurkeztuta:

–Izen-deiturak.

–Nortasun agiri nazionalaren zenbakia.

–Herria, karrika, zenbakia eta solairua, baita posta kodea eta telefonoa ere.

–Baimenduta saldu nahi diren gaiak, zehatz-mehatz.

–Titular beraren saltokietan lan egiten duten jendeei buruzko deklarazioa.

2. a) Udalaren baimenen titular direnek bi argazki beharko dituzte, karnet tamainakoak, eta ezarritako tributuak ordaintzera beharturik egonen dira, bulegoetan edo banku transferentzia edo helbideratzearen bidez.

b) Halaber, baimena ematen ahalko da sasoikako saltokiak paratzeko: gehienez ere, hiru hilabeterako urte naturalaren barnean; gutxienez ere, hilabeterako. Saltokia zenbat denboratan okupatzen den, horren arabera egokituko da tarifa. Gainerako esleipen-hartzaileei Udalak emanen die lizentzia; gutxienez ere, hiru hilabeterako balioko du eta, gehienez ere, urtebeterako.

Iritziaren araberakoa izanen da eta, beraz, Udalak balio gabe uzten ahal du, arrazoiak ikusita, komenigarritzat jotzen duenean, baina horrek ez du inolako kalte-ordainik edo gisakorik ekarriko.

Halaber, baimena ezeztatzen ahalko da interesdunak idatziz eskatuta. Kasu horretan ez du eskubiderik izanen horretarako ordaindu duen zenbatekoa itzultzeko.

#### **9. art.**

Merkatu txikietan gordetzen badira nekazariak beren uztetako produktuak saltzeko saltokiak, haien eskatzaileek, 8. artikuluan orokorrean adierazten diren agiriak ekarri ez ezik, nekazariak direla ere egiaztatu beharko dute.

#### **10. art.**

1. Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideek merkatu txikian saltzen aritzeko udal baimena jasotzeko aukera izanen dute. Ordenantza honetan eskatzen diren agiriak aurkezten ez dituzten eskatzaileei errekerimendua eginen zaie 10 eguneko epean aurkeztutako dokumentazioa behar bezala aurkez dezaten, eta adieraziko zaie horrela egin ezean eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela.

2. Esleitzeko epean bete gabetik izanez gero, aurkeztu diren eskatzaileen artean hautapena eginen du Udalak, irizpide hauetan oinarriturik: produktu berak salgai jartzen dituzten saltokiak ez errepikatzea, kasu sozialen balorazioa, une bakoitzean dagoen eskariaren balorazioa eta Barañaingo udal mugapean eta Nafarroako Foru Komunitatean bizitzea.

#### **11. art.**

1. <sup>Artikulu aldatua (2020-03-3ko NAO<sub>n</sub> argitaratua</sup> Oro har, pertsona, enpresa edo elkarte bakoitzak salmenta baimen bakarra eskuratu dezake urtero. Hala ere, ordenantza honen 7. artikuluan adierazitakoari jarraituz, Udal Agintaritzak beste saltoki bat betetzeko bigarren lizentzia bat adjudikatu edo baimendu diezaieke urte horretarako lizentzia emana duten pertsona, enpresa edo elkarte guztiei, baldin eta hala eskatzen badute Udal Erregistroaren bidez urte bakoitzeko urtarrilaren 15etik 30era bitartean. Horretarako, ordenantza honetako 8. artikuluan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte eta ezin dira 4.1 d) artikuluan aipatutako pertsona, enpresa edo elkarteak izan, horiek saltzeko baimen bakarra eduki baitezakete urteko.

2. Baimenak pertsonalak eta besterenduezinak izanen dira, eta gehienez ere urtebeterako indarra izanen dute. Hala ere, titularrak hiltzen denean edo lanerako baliaezintasun iraunkorra edo erretiroa hartzen duenean baino ezin izanen da baimendu behin bakarrik baimena ezkontidearen edo harekin bizi diren seme-alabetako baten alde lagatzea. Dena den, titularraren egoera hori behar bezala egiaztatu beharko da eta lagapena egoera hori sortzen duen gertaera gertatzen denetik hilabeteko epean eskatu beharko dute. Lagapen-hartzaileak ordenantza honetan saltokien titularrentzat ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

#### **12. art.**

Hona baimenetan zer azaldu behar den: titularraren argazkia eta datu pertsonalak, saltokiaren kokagunea merkatu txikiaren barrenean, eta salgai jartzen ahal diren gai eta produktuak.

#### **13. art.**

1. Ibilgailu egokietan baimendutako salmentetan salbu, saltokiak desmuntagarriak izanen dira eta baimendutako azalera hartuko dute soilik.

2. Saltoki guztiek beren titularrei emandako baimenak ikusgai izanen dituzte, erosleak kokatzen diren tokitik erraz irakurtzeko maneran.

3. Debekaturik dago saltokietan megafonia eta musika paratzea, eta baita soinu bidezko publizitate mezuak jaulkitzea ere. Musika aparatuak saltzen direnetan megafonia instalazioak jar daitezke eta musika jaulki, betiere, udal ordenantzek eta indarra duen araudiak musika sortzen den lekuan baimendutako gehieneko soinu maila gainditzen ez bada.

#### **14. art.**

Kamioi-dendei baimentzen zaizkien salmentek nahiz saltokiek ezin izanen dute bide-markek mugaturiko azalera baino handiagoa okupatu; horiek saltokia mugatzeko lerroen barnean egon beharko dute, bai salgaia bai paradaren elementuak.

Hegalkinen bertikalak ezin izanen ditu inoiz muga lerroak gainditu, eta handik zintzilika dauden gauzek eskura egoteko behar bezalako altuerara egon beharko dute. Horrek salmenta lerroa gainditzen ahalko du, bezeroak nahiz salgaiak babesteko, eguraldi txarra izanez gero, eta ez die inoiz trabarik eginen merkatu txikiaren erabiltzaileei.

Saltoki bakoitzean salmahairako eremua saltzaile bakoitzak salmentarako egokiena uste duena izanen da, betiere saltokia mugatzen duten lerroen barnean.

### **VI. KAPITULUA. Osasun ikuskapenak, administrazio kontrolak eta zaintza**

#### **15. art.**

1. Eremu publikoko saltokietako gai eta produktuen osasun kontrola eta ikuskapenak osasun arloko agintari eskudunei dagozkie.

2. Barañaingo Udaltzaingoari dagozkio eremu publikoko salmentaren kontrolak eta zaintza. Haren lana izanen da ordenantza hau zuzen betetzen dela zaintzea, hura betetzean irregulartasunak hautematea eta okupatzen ez diren saltokiak kontrolatzea.

### **VII. KAPITULUA. Saltzaileen eskubide eta betebeharrak**

#### **16. art.**

1. Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen eskubideak honako hauek dira:

- a) Dagozkien saltokiak okupatzea.
- b) Baimendutako gaiak saltzea, onartzen diren egun eta orduetan.

2. Saltokietan lanean ariko dira baimendutako jendeak edo salmentan laguntzen dutenak. Orobat, baimendutako pertsonaren menpe dauden langileak ari daitezke, hots, bertzeren kontura lanean ari direnak. Baimendutako pertsona horrek laguntzaileak Gizarte Segurantzaren sistema orokorrean sartuta daudela frogatu beharko du, betiere baimena lortzeko eskabidea egitean horren berri eman bazuen.

#### **17. art.**

Eremu publikoan saltokiak jartzeko baimena duten pertsonak hiru arlotan izanen dituzte betebeharrak: osasungintzan, merkataritzan eta zergetan.

## 18. art.

Higienearen eta osasungintzaren arloan une bakoitzean indarra duen araudian eskatutako baldintzak bete beharko dituzte elikagaiak merkaturatzen dituzten saltokiek.

Produktuen higiena:

a) Elikagaiak, ontziratuak izan edo ez, ez dira lurrean zuzenean jarriko; izan ere, kutsatzea eragotziko duen garaiera batean jarri beharko dira beti. Elikagaiak garraiatzeko ibilgailuek beteko dute aplikatu beharreko araudiak dioena.

b) Ontziratu gabeko elikagai guztiak, frutak eta barazkiak kenduta, jendearengandik behar bezainbat babesturik egonen dira beti, beira-arasetan eta gisakoetan sartuak.

c) Urdaiazpiko eta hertzekiak garraiatu, bildu eta jendaurrean erakusteko, beharrezko higiene baldintzak bete beharko dira eta inguruak garbi-garbiak eduki.

Urdaiazpiko eta hestebeteek zintzilik eta ordenaturik egon behar dute eta behar bezala betetako osasun agiriak izanen dituzte aldean. Ez dute inola ere ibilgailuaren zola ukituko. Salmahaiak material garbigarri eta iragazgaitzez eginak izanen dira eta garbiak egon beharko dute.

d) Salmentatik kenduko dira behar bezala kontserbatzen ez diren produktu guztiak. Puntu honetan, nagusiki, haragikiak hartzen dira kontuan (odolkiak, saltxitxak eta gisakoak), baita bakailoa eta hotza behar duten esnekiak ere.

e) Debeku da elikagaiekin xerrak, xerrendak eta apurrak egitea, non eta saltokiak ez dituen, osasungintzaren eta higiearen aldetik, gutxieneko baldintzak, hala nola ur hargunea eskuak garbitzeko, lanabesak eta manipulatzeko leku aski, kanpoko kutsaduretatik babestua eta garbitzea erraztuko duen azalera duena.

f) Tradizioko arrazoiengatik, onartuko da haragikien eta gazta onduen "noizbehinkako mozketa" (puska handietan) eta bakailoari mozketa bat egitea, gillotina bereziarekin, manipulatu ahal izateko.

Saltokiko higiena:

a) Saltzaile bakoitzak du saltokia eta inguruak garbi eta txukun edukitzeko ardura, eta lanaldia bukatuta garbi-garbiak utzi beharko ditu. Horretarako ez da salgai, ontzi, saski edo antzekorik utziko haren gibelean edo inguruan.

b) Zaborrak poltsa ongi itxietan utziko dira horretarako prestatu edukiontzietan.

c) Hondakin larriak, kartoizko ontziak, saskiak etab. hautsi beharko dira edo tolestu edo txikitu, edukiontzian sartu ahal izateko. Ez dira inola ere edukiontzien inguruan utziko.

d) Elikagaiak saltzen dituzten saltoki guztiak idorpean egonen dira, haiek babesteko.

e) Lanaldia hastetik, langilearen garbitasuna eta bere arroparena zaindu beharko da. Saltokian aritzeko baizik ez den arropa erabiliko da.

f) Merkatu txikiaren esparruan ez da animaliarik sartzeko utziko.

g) Ordenantza honetan adierazitakoa gorabehera, Iruñerriko Mankomunitatearen Hiri Hondakinen Kudeaketa arautzen duen ordenantzan ezartzen denari jarraituko zaio.



## **19. art.**

Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonak merkataritza arloko eginbehar hauek izanen dituzte:

- a) Dagozkien saltokiak okupatu eta ezarritako egun eta orduetan irekita edukitzea.
- b) Udal baimenak ikusgai jartzea, erosleak dauden tokitik erraz irakurtzeko moduan.
- c) Erakusten dituzten produktu guztiak saltzeko maneran edukitzea. Betiere, baimenduriko produktuak baizik ezin izanen dira ikusgai jarri.
- d) Hala eskatzen zaienean, ordenantza honetan eskatzen diren dokumentu guztiak udal zerbitzuei erakustea.
- e) Salgaien ondoan haien prezioa argi eta zehatz agertzea. Horretarako, salneurri errotuluen neurriak erosleen aldetik ikusteko modukoak izanen dira.
- f) Udal organo eskudunak pisu eta balantzarako ezartzen duen kontrastea onartzea.
- g) Saltokira agertzerik ez badute, behar bezain aitzinetik jakinarazi beharko diote Udaltzaingoari, eta horretarako arrazoiak azaldu.

## **20. art.**

Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena eskuratzen dutenek zerga arloko eginbehar hauek izanen dituzte:

- a) Salmentarako beharrezko den kasuetan, eskaturiko fidantza uztea.
- b) Dagokion ordenantza fiskaleko tasa eta eskubideak ordaintzea.

Hiruhileko bakoitzaren hasieratzat honako hauek hartuko dira: urtarrilaren 1a, apirilaren 1a, uztailaren 1a eta urriaren 1a.

## **VIII. KAPITULUA. Arau-hausteak eta zehapenak**

### **21. art.**

Baimenen titularrak erantzule izanen dira, ordenantza honetako xedapenak hausten badituzte haiek beraiek edo saltzen laguntzen duten langileek.

### **22. art.**

1. Arau-hausteak kalifikatuko dira merkataritza ez egonkorra aldi bakoitzean arautzen duen Foru Legean ezartzen denari jarraikiz, eta bereziki modu honetan:

A.–Arau-hauste arinak:

a) Arau-hauste arintzat hartuko da baimenean ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, baita udal ordenantza honek ezarritako betekizun eta eginbeharrak ez betetzea ere, betiere azken horiek larri edo oso larritzat hartzen ez badira.

b) Zehatz-mehatz, hauek dira arau-hauste arinak:

–Merkatu txikia hasten den ordu berean zerbitzua ematen ez hastea.

–Saltokia baimenik gabe hiru egun edo gutxiagotan itxia edukitzea, aurretik idazki batean justifikatu gabe.

–Udal baimena jendaurrean ez izatea.

–Ordenantza honi jarraikiz, saltokietan aritzeko baimena duten pertsonak egon beharrean, bertze batzuk egotea, aginduzko baimenik ez izateagatik arau-hauste oso larritzat hartzen ez bada.

B.–Arau-hauste larriak: hauek dira arau-hauste larriak:

a) Arau-hauste arina berriro egitea.

b) Ordenantza honetan eskatu osasun eta zerga arloko betekizunak ez betetzea.

c) Saltzeko ekartzen diren gaiak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak ez betetzea.

d) Udaleko agintari, funtzionario edo agenteei beren eginkizunak betetzen ari direnean argibideak ukatu edo ez ematea, baita argibide okerrak edo gezurrezko dokumentazioa ematea ere.

e) Parada esleitu den saltokian ez paratzea, Administrazioak espresuki baimendu gabe.

C.–Arau-hauste oso larriak: hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Arau-hauste larriak berriro egitea.

b) Saltzeko baimenik ez izatea.

c) Udaleko agintari, funtzionario eta agenteei beren eginkizunak betetzen ari direnean aurre egitea, hertsatzea edo mehatxatzea.

d) Saltokia baimenik gabe sei egun edo gutxiagotan itxia edukitzea, aurretik idazki batean justifikatu gabe.

e) Kontzesio hartzaileak saltokiaren kontzesioa eskualdatzea.

### **23. art.**

Arau-hauste arinak 150 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste larriak 151 eurotik 600 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste oso larriak 601 eurotik 3.000 eurora arteko isunarekin zehatzen ahalko dira eta, zein den kasua, saltzeko baimena aldi baterako kenduko da, edo baliorik gabe utziko.

Isuna %50 merkeago ordaintzen ahal da, zehapen prozedura ireki dela jakinarazi ondoko hogeita hamar egun natural iragan aitzin pagatzen bada eta inpugnazio orori uko egiten zaiola dioen idazkia aurkezten bada.

Deskontuarekin ordainduz gero, prozedura bukatutzat joko da, ebazpen espresik eman beharrik gabe.

Aurreneurri gisa, salgaiak bahitzen ahalko dira, baldin eta, egindako jarraipena eta gero, merkatuan saltzeko eskatzen diren gutxieneko baldintzak ez dituztela betetzen uste bada; agintari eskudunaren ustez osasunarentzat arriskurik sortzen badute, edo saltzeko behar den baimenik ez bada, konfiskatu egingen dira.

#### **24. art.**

1. Espediente zehatzaileen prozedura indarra duten administrazio xedapenetan ezarritakoari lotuko zaio.

2. Arau-hauste arinei, larriei edo oso larriei zehapenak ezartzeko, espedientea beharko da aitzinetik; hura ordenantza honetan ezarritakoaren arabera tramitatuko da, eta subsidiarioki administrazio prozedurari buruz indarra duten arauetan ezarritakoaren arabera.

3. Zehapenak ezartzeko ahalmena alkatearena da. Udaletik kanpoko agintariek zehatu behar dituzten arau-hausteak direnean, alkateak emanen die haien berri.

4. Kasuak arras larriak direnean, organo eskudunak jarduera etetea erabaki dezake, badaezpadako neurri gisa, arau-hauste larri edo oso larriak egin direla-eta irekitako zehapen espedientea tramitatzen den bitartean.

Barañaingo bestetan kalez kaleko salmentarako saltokiak paratzeko xedapen berariazkoak

#### **25. art.**

Barañaingo herriko bestetan, kalez kaleko salmentarako saltokiak Alkateak zehazten duen tokian paratuko dira, dagokion informazio batzordeak aitzinetik txostena eginda. Orobat ezarriko da saltokien kopurua eta haien luze-zabalak.

#### **26. art.**

Barañaingo bestetan kalez kaleko salmentarako saltokia paratzeko baimena lortzeko eskaerak Udaleko Erregistroan aurkezten ahalko dira urtarrilaren 1etik apirilaren 30era bitartean, eta argibide hauek izan beharko dituzte: eskatzailearen izen-deiturak, NAN zenbakia, helbidea, telefono zenbakia, saltzen dituen produktuen zehaztapena eta behar den ordenantza fiskalean zehazten den fidantzaren diru-sarreraren egiaztagiria. Fidantza eskatzaileei itzuliko zaie, Herriko Etxean aitzinetik eskatuta, esleipen hartzaileena kenduta, hura bestak bukatuta itzuliko baita. Fidantzak itzultzeko eskatzeko epea eskaeraren urteko abenduaren 31n bukatuko da.

Saltokien esleipena eskatzaileen arteko zozketaren bidez egingen da. Esleipena jasotzen duten eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

–NANaren edo AIZren fotokopia.

–JEZan altan eta haren ordainketa behar den epigrafean eguneratua izatearen ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzari altan eta haren ordainketa eguneratua izatearen ziurtagiria.

–Erantzukizun zibileko aseguruia, 100.000 eurokoa.

–Ordenantza fiskalean zehazten den tasaren diru-sarreraren ziurtagiria.

Ezartzen den epean agiri horiek aurkezten ez dituzten esleipen hartzaileei, ezinbertzean izan ezik, fidantza konfiskatuko zaie, aldi berean erantzun ahal izateko saltokia paratzearen ondorioz eragiten ahal diren kalteengatik. Fidantza hori orobat konfiskatuko zaie emandako espazioa erabiltzen hasten ez bada onuradunari egozten ahal zaizkion arrazoiengatik.

## **27. art.**

Ez da baimenik emanen saltokia paratzeko, bertan, pertsoneri objektuak jartzean, gorputzaren edozein atal karrakatu edo zulatu behar bada (belarritakoak, uztaiak, kuttunak, tatuajeak eta bar).

Debeku da gazteei edozein elementu edo produktu eskaintzea edo saltzea osasunerako edo segurtasunerako arriskua badakar (petardoak, tabakoa, edari alkoholdunak), bereziki beren erabiltzaileei nahiz hirugarrenei lesioak eragiten ahal dizkietenak. Ildo beretik debeku da laser-erakusleak eta su-armak imitatzen dituzten jostailuak eskaintzea eta saltzea.

Espresuki debeku da jabetza intelektuala babesteko araudian aipatzen diren elementuen kopia baimen gabeak eskaintzea eta saltzea.

Debeku da arrunt kalez kale saltzeko diren feriako puxikak gas deflagragarriarekin kargatzea, edo sute, eztanda edo intoxikazio arriskua ekar dezakeen deusekin.

Halaber, debeku da mota guztietako trepeta piroteknikoen kalez kaleko salmenta (ke-bonbak, luminariak, petardoak eta abar) baita megafonoena ere, grabatuak dauzkaten soinu, sirena edo gainerakoek ordena publikoa tratatzen badute edo larrialdietako zerbitzuen sirenekin nahasten ahal badira.

Kalez kaleko salmentaren arloko arau-haustekak, edo artikulua honetan ezarritakoa ez betetzeagatik heldu direnak, ordenantza honen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko dira; orobat salgai diren produktuen konfiskazioa ekartzen ahal dute, baita baimenaren deuseztapena ere.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Ordenantza honek indarra hartzen duenean, Barañaingo merkatu txikietan saltokiak okupatzeko emandako baimenek indarra izanen dute bertan jarritako epean. Dena den, bukatzen direnean berritu behar dira, ordenantza honetan ezarritakoari jarraikiz.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Indarrrik gabe gelditzen dira ordenantza honi kontra egiten dioten udal xedapen guztiak, eta bereziki Merkataritza ez egonkorra arautzen duen udal ordenantza, Barañaingo Udalak 2013ko urtarrilaren 25ean egin osoko bilkuran onetsi zuena (2013ko 72. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, apirilaren 17koa).

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenbizikoa.—Ordenantza hau izateak ez dio ekarriko Udalari bertan arautzen diren salmenta motak nahitaez baimendu beharra.

Bigarrena.—Ordenantza honek indarra hartuko du eta ondorio juridiko osoak sortuko, testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondotik.